



17. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 17. eguna. 2020ko apirilaren 1a, asteazkena.

Asteartea, martxoak 31ko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Begi-bistakoa ukatu. Udaletxeak asetu ez dituen beharrak mahai gainean jartzen bi aste daramatzagu. Gure intsistentziak eskaini diren baliabideak aurrera eramaten lagundu duela uste dugu, eta orokorrean **ekintzen atzetik eta berandu** jokatu dela deritzogu. Egoera batzuetan, beharrezkoak ziren baliabideak ez eskaintzeko orduan, arazoa denbora zela entzun dugu (prozesua azkartzea ezinezkoa omen zelako), eta beste batzuetan arazoa eta egoera zuzenean **ukatu egin dira**. Hauxe bera ikusi genuen atzoko egunkarian, Gizarte Zerbitzuetako Saileko zuzendariak “kale egoeran dagoen pertsona bakar bat ere ez da geratu arretarik gabe” esan zuenean, eta aldi berean *Atano*-ko sarreran arretarik jasotzen ez duen jendea dagoelarik. Egunkarian nahi duena esan dezakeen bitartean, horrek ez du errealitatea ez hobetzen ez borratzen. Harrera Saretik egiten ditugun balorazioak argi eta garbi eztabaidatu daitezke, baina ez publikoak egiten ditugun egoerak errealak. Gure esperientziak erakutsi digun bezala, **errealitatea ukatzea ez da arazoak konpontzeko laguntza aproposa**. Atzo publikoki ukatuz gero, atzoko egunean bertan *Atano*-n plaza berriak prestatu zituzten pertsona horiei arreta emateko. Egia esan, gure aldarrikapenak ukatzeak ez du garrantzirik aldi berean, isil-isilik, baliabideak jartzen badituzte.

Beste herrialde batzuetako baliabideak dira. Hemen aspalditik ezagutzen dugun arazo batekin aurkitu gara berriz; eskainitako baliabideak nahikoak ez izatearen arrazoia beste herri batzuetan daudela al da? Aipatu izan dugun bezala, arazo honetan hiru maila instituzional daude (udala, forala eta gobernu), eta hiru hauek egoeran parte hartzea eskatzen dugu konponbideak aproposak eta efikazak izan daitezen behingoz.

Mugan. “*Asko jota, 10 pertsona gehiago jaso ditzakegu*”, gaur bertan irakurtzen dugun beste adierazpen bat. Nondik atera da ondorio hau? **Baliabideak badaude**, behin eta berriz errepikatu dugun bezala, eta **presupuestoa ere**. Ezin dugu ulertu, Eusko Jaurlaritzak azken egunetan Udalaren menpe aurrekontu-saileko parte bat jarri berri duenean, behar larri honi erantzunik emateko baliabiderik ez egotea. Ez al gaude salbuespen egoera batean, kale egoeran daude pertsonak bertan egotea debekatzen zaienean?

KOMUNIKABIDEAK. Diario Vasco: <https://www.diariovasco.com/san-sebastian/donostia-punto-llegar-20200331202328-nt.html>, Noticias de Gipuzkoa <https://www.google.es/amp/s/amp.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2020/03/31/reclaman-albergues-sintecho-donostia/1021965.html> Donostitik <https://www.donostitik.com/red-ciudadana-de-acogida-y-consistorio-chocan-en-su-analisis-de-la-atencion-a-personas-sin-hogar/> Gainera, **Prentsa Oharra** ere zabaldu zuten egunkariak, eta komunikabide eta sareetara 16. Buletina zabaldu zen.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomikoari dagokionez, **131 pertsonak** egindako diru-laguntzei esker **7.617€**ko kopurua jasotzera iritsi gara. Egunero **Gandarias** eta **Pandorak** egiten diguten elikagai ekarpenari, **Platero** taberna ere batu egin da.



17. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Hurrengo egunerako Pilulak. *¿Ba al dakigu zeintzuk diren etxerik ez duten pertsonak? ¿Zein behar dituzten? ¿Zein eskubide? ¿Zein amets? ¿Zein gaitasun? ¿Zein laguntza eskaini dezakegun? Galdera hauei zuzenduta aurkezten ditugu Hurrengo eguneko Pilulak.*

6. PILULA

AURREIRITZIAK ETA ZURRUMURRUAK

Betetzen den iragarpena. Aspalditik errepikatzen ditugun ideiek gure artean jarraitzen dute, pertsona hauek mota honetakoak direla esanez, edo beste honetakoak, kalean kontrolatzen ditugun bitartean eta bada ezpada gehiagi hurbiltzen ez garelarik. Ez dute lan egiteko gogorik, laguntzetatik bizi dira eta kontuz ibili lapurtu ez zaitzaten; guk iritziz aldatzeko asmorik ez dugunez, ez al ditugu horrela bukatzera nahitaez bultzatzen?

Ez dute lanik egin nahi. Zurrumurrua izateaz gain, ideia hau leku askotan entzuten den tontakeri galanta da. Etxerik ez duten pertsonen artean, kalean bizi direnak edota logelaren batean laguntzekin, gehiengoak 18 eta 25 urte bitartean dituzte. Aurrera atera nahi duten gazteak dira, beraiei familiei laguntzeko, eta askotan gazte autoktonoen artean dagoen lan gogoia baino askoz nahi handiagoa dute. Betetzen ez duten baldintza bakarra, aldiz, lan egiteko baimena ez izatea da. Atzeritarren Lege xenofobia izaten da lan egiteko baimena ez izatearen errudun argiena, eta egoera honek irregulartasunera eramaten ditu.

Lapurrak dira. Pertsona hauen adina, aukera falta eta estigmatizazioa kontuan izanik, delinkuentzia kasuak gutxiengoak dira (baldintza berdinak dituzten autoktonoen artean maizagoak izanik). Aldiz, erraztasun handiz zabaltzen ditugu gure usteak batetik bestera, eta atzeritar gutxi batzuek egindako delituak atzeritar orori leporatzen dizkiogu. Adibide antzekoa izango litzateke, indarkeria matxistak salatzen dituen gehienak gizon katolikoak izango balira, eta ondorioz hilketa eta bortxaketa guztien errua katolikoena dela esango bagenu.

Desinformazio-bideak. Geroz eta ohikoagoa iruditzen zaigu kolektibo minoritario bat delinkuentzia ekintza batekin erlazionatuta agertzen denean, komunikabideek bere jaioterria edo etnia azpimarratu behar izatea. Entzuleei, gainera, aurreiritziz josia baldin badute burua, berriak azaltzeko modu hau guztiz ondo datorkie beraiei usteak guztiz konfirmatzeko.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea: aurreiritziak eraisteko erantzukizuna serio har dezagun, eta ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea parte har dezagun. Aurreiritzi hauek egunero jasaten dituzten pertsonak bihotzez eskertuko digute, eta gizarte osasuntsu eta solidarioago bat sortzen ariko gara.

Zurrumurruen kontra, orain.

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.